



**32/2003 GOMENDIOA, AZAROAREN 25EKOA, DURANGOKO UDALARI  
EGINA, 2000 URTEARI DAGOZKION ZABOR ETA ESTOLDERIA TASA  
GISA ZENBAIT JABE-ELKARTERI BIDALITAKO LIKIDAZIOAK  
BALIORIK GABE UTZ DITZAN, EZ BAITAUKATE LEGERIAREN  
BABESIK.**

**Aurrekariak**

1. 2002ko urrian, Durangoko Udalak Barrenkaleko (...) zenbakiko eta Zumalakarregi kaleko (...) zenbakiko jabe-elkarteei alta eman zien zaborra bildu eta deuseztatzeagatik eta estolderia zerbitzuagatik kobratzen den tasari dagokion erroldan.

Jabeei bidalitako jakinarazpenean adierazi zenez, tasa hori arautzen duen ordenantza fiskalak "atari bakoitzeko" tarifa ezarrita dauka, eta tarifa hori Durangoko jabe-elkarte gehienak jada ordaintzen ari zirenez gero, laster kobratuko zizkien azken hiru urteetako erreziboak.

2. Kexagileak errekurtsio bat jarri zion udal horri, 2002ko azaroaren 19an. Zalantzan jartzen zuen udalaren jokaera legezkoa ote zen, beste arrazoi batzuen artean, "atari bakoitzeko" tarifa hori 2001 urtera arte ez zelako sortu, eta ez zelako sartu zabor biltze eta deuseztatze zerbitzuagatik eta estolderiagatik kobratzen den tasa arautzen duen Ordenantza fiskalean. Beraz, ordaintzeko eskea 2002 eta 2001 urteei buruz bakarrik egin zitekeen, baina ez 2000 urteari dagokionez. Errekurtsioa atzera bota zuten, 2003ko martxoan.
3. Erakunde honek, kexa eragin zuen tasaren gainean udalak onartu eta BAOn argitaratu zituen tarifak egiaztatu ondoren, hauxe ikusi zuen: 2001 eta 2002 urteetan ezarri beharreko ordenantzetan "atari bakoitzeko" tarifa ageri zen arren, zerga-kontzeptu hori ez zegoela 2000 urtean; horregatik, 2000 urteari buruz, tarifa hori kobratzeko eskaera ezin zela egin adierazi genuen, aurrez ez baitzen tarifa hura ezartzea erabaki, onartu eta BAOn argitaratu.
4. Durangoko Udalak bere erantzuna besteratu du, eta kobratzea zilegi dela dio, honako argudio hauetan oinarrituta:
  - Tasa ezarri zenetik, "atari bakoitzeko" kontzeptuagatik kobratu zaizkie ordain-agiriak jabe-elkarteei. Tarifa hori, zenbatekoari



dagokionez, etxebizitzarentzat ezarritakoaren antzekoa da, eta inoiz ez da horren kontrako errekurtsorik aurkeztu.

- Udalen burujabetasun eta finantza-nahikotasunaren adierazgarri da beren baliabideak zenbat izango diren, nola lortuko diren eta zertarako erabiliko diren erabakitzeke ahalmena.
- Durangoko Udalariri irizpide egokiagoa iruditzen zaio jabeen elkarteari bidaltzea eraikinaren elementu komunengatik ordaindu beharreko zenbatekoaren ordain-agiria, kostu hori eraikina osatzen duten etxebizitzetako bakoitzari bidali beharrean.
- Zaborra biltzeko zerbitzuaren onuradun dira eta, egiaz, zerbitzu hori ematen zaie bai etxebizitzeari, bai jabeen elkartei ere, nahiz eta, jabe-elkarteen kasuan, zerbitzuaren zatirik garrantzitsuen estolderiari dagokion.
- Zerbitzuaren kostuaren zama banaturik, errespetatu egiten da indarreko legeriak ezarritako gehieneko muga; horren arabera, zerbitzu bat emateagatik ezarritako tasen zenbatekoak ez du gainditu behar, oro har, zerbitzu horren benetako kostua edo aurreikus daitekeena. Gai horren gainean, behin eta berriz adierazten da zerbitzu hori ematea oraindik ere defizitarioa dela Durangon.
- Azkenik, udal horrek zera adierazten du: jakinarazitako egintza behin betikoa dela administrazio-bidean, eta Ararteko erakundea ados ez badago eta bidezkoa baderitzo, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez diezaiokeela administrazioarekiko auzitarako epaitegi eskudunari, edo, bestela, berraztertzeke aukerako errekurtsioa alkatetza horri.

### **Gogoetak**

1. Kexaren mamiari heldu baino lehen, eta administrazioarekiko auzitarako epaitegira jotzeko aukera aipatu denez gero, erakunde honek zenbait gauza argitu nahi ditu otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- Arartekoari eman dizkion eginkizunei buruz.



Egiaz, justizia-epaitegiei dagokie araugintza-ahalmena eta administrazioen jokaera legezkoa den ala ez kontrolatzea, Konstituzioaren 106.1 artikuluan adierazten denez. Hala ere, zehazpen bat egin beharra dago, herritarrek agintari publikoen jokaeren kontra dituzten bermeak argiro azaltze aldera.

Beraz, zuzenbide Estatuak herritarrari eskaintzen dizkion bi berme-sistemak aipatzea komeni da, Konstituzioaren 1.1 artikuluan ageri baitira. Horrela, alde batetik, jurisdikzio alorreko bermeak ditugu, justizia-epaitegietan kokatuak, eta, bestetik, erakunde alorreko bermeak, Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan aldarrikatuak eta babestuak -testuinguru horrexetan kokatua dago Ararteko erakundea-.

Aurrez aipatutakotik azpimarratzekoa da gure legeriak legebiltzar ordezkariari ematen dien baliozkotasuna, horiek herri-administrazioen jardura legezkoa izan dadin zaintzen baitute. Horrela, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau Euskal Autonomia Erkidegoan sortu eta arautzekoak- zioen adierazpenean ezarritakotik ondoriozta daitekeenez, honako hau da Ararteko erakundeari emandako eginkizunetako bat: euskal herri-administrazioen jardura ikuskatzea, herritarrek ondo gobernatuak izateko duten eskubidea babesteko asmoz, eta legezketasun printzipioa bermatzearen.

Zehazkiago, lege horren 1.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, euskal herri-administrazioen agintekeria eta zabarkeriaren kontra herritarrak babestea da erakunde honen eginkizun nagusia.

Ikuskatze-lan hori herritarrek epaitegietara jotzeko duten aukeraren osagarria da. Nolanahi ere, herritarrek bakarrik erabaki dezakete aukera bat edo bestea aukeratu. Horregatik, Arartekoak, gaia bere iritzipean jarri ondoren, ezinbestean horren berri izan behar du, baldin eta 3/1985 Legeak 13. artikuluan ezartzen dizkion mugetakoren bat tartean ez bada.

2. Arartekoak ez du zalantzan jartzen edo jarri udalerrri horren burujabetasun printzipioa, ez gure legeriak ematen dion araugintza-ahalmena, ezta bere udal zerbitzuak kudeatzeko autonomia ere..., baizik eta, aitzitik, zera azaldu du: eskumen horiek gauzatzekoan, Durangoko Udalaren Osoko Bilkurak ordenantza fiskal batzuk ezarri zizkiola bere buruari 2000 urtean, eta ordenantza haien arabera eskatuko zuela gero beraietan ezarritako kontzeptu ezberdinengatik ordaintzea. Ordenantza haiek, Bizkaiko Agintaritza



Aldizkarian argitaratu ziren, 251. zenbakian, 1999ko abenduaren 31n, eta 2000ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Haietako batek, 7. ordenantzak hain zuzen, zerbitzugintza eta jarduera publikoen tasa arautu zuen. Eranskinean, 1. epigrafean zehaztu zen Durangoko herrian, 2000 urtean, nola erreklamatu zen zabor biltze eta deuseztatze zerbitzuaren eta estolderia zerbitzuaren ordainketa.

Orduan, 1. epigrafe horren edukia da erakunde honen aztergai bakarra.

Zerga-egitatea nola zehazten den aztertu beharra daukagu, hortaz, eta baita ordenantzak zein tarifa sortzen dituen ere, izan ere, bere ordenantzan ezarritako aurreikuspenekin bat etorritik bakarrik eskatu ahal izango du Durangoko Udalak ondasunezko prestazio ekonomikoak ordain daitezen. Hau da, kobratu ahal izateko, administrazioak zerga-egitatea definitu behar du lehenik, eta hori zehaztu ondoren, zenbateko bat ipini zerga-egitate horri (zerga-tipikotasunaren printzipioa).

3. Ordenantzaren 1. epigrafeak honela zioen 2000 urtean: "*Egitate ezargarria, zabor biltze eta estolderiaren zerbitzugintzak zehaztuta dago*" (sic); eta ezarriko ziren tarifak zerrendatu zituen gero. Horrela, ordenantzak 9 kontzeptu bereizi zituen, eta, zerga-legezketasunaren printzipioak exijitutakoaren arabera, hiru hilabeteko kuota ordainketa dezente handiagoa ezarri zuen zaborrengatik estolderiagatik baino. Zehazki, tarifak hauexek ziren:

1. Etxebizitza bakoitzeko
2. Jarduera komertzial gabeko lokalak
3. Komertzioak, merkatal lokalak
4. Merkatal bulegoak, profesionalak
5. Biltegiak, banketxeak, aurrezki kutxak, finantz entitateak, klinikak
6. Ostalaritza negozioak eta antzerakoak
7. Garajeak eta ibilgailuak gordetzekoak
8. Industri, lantegi, herri erakunde eta mota guztietako tailerrak
9. Supermerkatu, hipermerkatu eta biltegi handiak (100 m<sup>2</sup> baino gehiagokoak)

Horren ondorioz, udal horrek ordenantzetan bere buruari ezarri zizkion xedapenen argitan, erakunde honek ulertu behar du, ezinbestean, 2000 urtean



Durangoko Udalak etxebizitzei ezarritako tarifan sartzen zuela eraikinen elementu komunetako zerbitzuaren kostua. Izan ere, jokaera hori da ohikoena gure autonomia erkidegoko udalerrietan.

Nabarmena da etxebizitza kontzeptuan ez dagoela sartzerik atari kontzeptua, ezta antzekoa izanik ere, eta hori ezartzea debekatzen du, gainera, Tributu Lege Orokorrak (23.3 artikulua). Hortaz, 2000ko Ordenantza erabiliz, ez dago atari bati egozterik etxebizitza baterako ezarritako zabor biltze eta estolderia tasaren zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### **32/2003 GOMENDIOA, azaroaren 25ekoa, Durangoko Udalari egina**

Baliorik gabe utz daitezela 2000 urteari dagokion zabor biltze eta deuseztatze zerbitzuagatik eta estolderia zerbitzuagatik Barrenkaleko (...) zenbakiko eta Zumalakarregi kaleko (...) zenbakiko jabeen elkarteei bidali zaizkien likidazioak, "atari bakoitzeko" tarifa ez baitzen agertzen udalerrri horrek 2000 urterako onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Ordenantza fiskalean.